

Garñoakoak luze joko du

GARÑOAKO zentral nuklearraren aurkako borrokan aritzen direnetako batzuk ospakizunetan ikusi nitue-nean orain sei edo zortzi hilabete, sentipen arraroak izan nituen; ez bainuen uste botere ekonomikoek, besterik gabe, beraien deskoordinazioak eragina, hain erraz etsiko zutenik.

Zentrala itxita dago, baina hori iragarri zutenek ere garbi adierazi zuten arrazoi ekonomikoengatik itxi zutela, Espainiako Estatuko energiaren lege berriak ezarritako betebeharren ondorioz. Eta esan zuten hurrena zera izan zen: “Ea nola moldatzen dugun legea zentrala berriro martxan has dadin, segurtasun arazorik ez dago eta”.

Une batzuetan pentsatu izan dut zentrala kudeatzen duen Nuclenor enpresaren eta Madrileko administrazioaren arteko deskoordinazio arazoak izan direla azken hilabete hauetako gertaeren arrazoi nagusia. Ardatz horri Europatik segurtasun nuklearraren inguruan datozen arauak erantsi behar zaizkio.

Faktore askok baldintzatuko dute, dudarik gabe, Garñoako etorkizuna; denbora aurrera joan ahala faktore berriak, aurreikusi gabeak, azalduko dira. Botere ekonomikoak praktikotasunaren eremuan kokatuko du eztabaida, hau da, zentrala segurua da eta krisi ekonomiko garaia ez dira egokienak horrelako energia bideak bazterrerara uzteko. Argudio berdinak erabiliko dira zentralaren aurka egiteko: segurtasuna ez da inoiz nahikoa izango, eta ekonomikoki ere zentralak, itxi ondoren, gastua eragiten segituko du hondakinen ondorioz.

Urtebete luze dute agintariak legedia aldatzeko eta Garña abiatzeko, eta gauzak asko aldatzen ez badira Garña abiatu egingo da; izan ere, lerro hauetan behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, zentrala ixtea gauza bat da, eta beste bat eraitea. Lehen teknikoki erraza da, bigarrenak ez du konponbiderik oraindik. Beraz, Garñoakoak luze joko du, oso luze. ■



EL CORREO



ELORRI ZURIA

Garñoako zentralaren aldeko (goian) eta aurkako (behean) mobilizazioak.

Zergatik ikusten dugu gehienetan zerua urdin?

Eguzkitik datorkigun argia, Lurrera ailegatu bitartean, argi zuria da, baina atmosferan dauden partikulekin talka egitean hainbat osagaitan deskonposatzen da. Hala, oskarbi denean urdin ikusi ohi dugu zerua. Prozesu hori nola gertatzen den oso ongi ikusten da ondoko loturako infografian.

ttiki.com/52744
(Frantsesez)

Ardoa hipertentsioaren aurka

Tucumaneko Unibertsitate Nazionaleko (Argentina) ikerlari talde batek, Salta eskualdeko ardoak aztertu ondoren, ardo batzuetan hipertentsioaren aurkako ezaugarriak dituzten peptidoak identifikatu dituzte. *International Journal of Food Microbiology* aldizkarian argitaratu dituzte ikerlanaren emaitzak.

ttiki.com/52745
(Gaztelaniaz)

Intsektu-plagen aurka, intsektuak

Intsektu-plagen aurka substantzia kimikoak erabiltzen dira gehienetan, baina sistema horrek nahi gabeko ondorioak izaten ditu. Hori horrela, zientzialariak beste arma batzuk probatzen ari dira. Erantsitako loturan, labezomorroen aurka liztorrak nola erabili azalduko dizute.

ttiki.com/52746
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16